

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Angel Bermeosolo Arrate Zintzo

*Amoroto,
Bizkaia (1942)*

Aurkibidea



Biografia



1942. urtean jaio zen Ispasterko Zatika auzoko Zatikatxu baserrian; Ispasterko lurretan egon arren, elizaz Lekeitio da. Aita Amоротoko Castillo baserrikoa zuen eta ama Gizaburuagakoa. 6 arrebaren ostean jaiotako semea da. Umetan Gardatako eskolara joan zen. Igeltseroa izan zen lanbidez. Gaztetan 12 urtez, 25gaz hasita, nabegatzen aritu zen merkantzia-ontzietan mundu guztian zehar: petrolioa, mineralak eta frutak (platanoa batez ere) garraiatzen zituzten. Kantuzalea izatez, sasoi bateko kanta, bertso zein ipuinak kantatu eta kontatu zizkigun. Ezkondu ostean Lekeitio bizi izan zen 80ko hamarkada hasieran bere emaztearen etxera, Amotorotoko Telleria baserrira, joan zen arte.

Zintak

AMT-005

- **Proiektua:** Lea Ibarreko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2025-04-22
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

AMT-006

- **Proiektua:** Lea Ibarreko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2025-04-22
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. "Zintzo" ezizenaren jatorria

- **Erref:** AMT-005/002
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:00:05. **Bukatu:** 00:02:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

Angel Bermeosolo Arrate. "Zintzo" ezizenez ezagutzen dute denek. Ezizena nondik datorkion kontatzen du. Erdiko semeari ere "Zintzo" esaten diote.

2. Ispasterko Zatikatxu auzoan jaioa

- **Erref:** AMT-005/004
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:04:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ispasterko Zatika auzoko Zatikatxu baserrian jaio zen. Ispasterko auzoak. Gertutasunagatik, elizaz Lekeitiokoak ziren beraiek. Aita Amorotokoa zuen eta ama Gizaburuagakoa. Gurasoak Ereñon bizi izan ziren aurretik eta hiru alaba zituztela joan ziren Zatikara bizitzera. Angel senideetan gazteena da.

3. Bermeosolo abizenaren jatorria; Kastillo baserria

- **Erref:** AMT-005/005
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:04:38. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bermeosolo abizenaren jatorria. 1700ean Amoroton Bermeosolo bakarra zegoen eta Bermeosolo baserrikoa zen. Handik hasi ziren gero adarrak zabaltzen, baina euren jatorria Amoroton dagoela dio. Kastillo baserriaren historia. Aita eta anaiak Ameriketara joan ziren. Aita itzuli egin zen, baina hiru anaia han geratu ziren bizitzen. Hango senideekin harremana.

4. Soldadutzatik libre, gurasoak zaintzearren

- **Erref:** AMT-005/008
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:08:51. **Bukatu:** 00:09:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gurasoekin bizi izan zen Zatikari. Bera zen senideetan gazteena eta soldadutzatik libratu zen, guraso nagusiak zituelako. Urtero demostratu behar

izaten zen, gurasoak zaintzen ari zela. 25 urterekin, tramite hori bukatu zenean, itsasora joan zen lanera.

5. 12 urtez itsasoan, merkantzia-ontzietan lanean

- **Erref:** AMT-005/009
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:09:54. **Bukatu:** 00:14:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Nabigatzea

Laburpena:

25 urterekin itsasoan hasi zen lanean, merkantzia-ontzi norvegiarretan. Petrolio-ontziak eta frutarekin lan egiten zutenak banatu egin ziren eta bera fruta garraiatzen zutenetan geratu zen. Platanoak garraiatzen zituzten gehienbat. Mundu osoan zehar nabigatu zuen. Ordu-alaketak. Petrolio-ontzietan ibili zenean hilabete egiten zuten lurrik ukitu gabe. Egindako bidaien inguruko kontuak.

6. Konpainia norvegiarra, tripulazioa euskalduna, bandera liberiarra

- **Erref:** AMT-005/010
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:14:04. **Bukatu:** 00:16:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Nabigatzea

Laburpena:

Merkantzia-ontzien konpainia norvegiarra zen, baina bandera aldatutako barkuak zirela azaltzen du: beraiek Liberiako banderarekin ibiltzen ziren, merkeago ateratzen zitzaielako (zerga gutxiago ordaindu behar zelako). Tripulazioko kideak euskaldunak eta galiziarrek izaten ziren normalean.

7. Emaztea ere merkantzia-ontzian bidaiatzen I

- **Erref:** AMT-005/011
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:16:05. **Bukatu:** 00:17:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Nabigatzea

Laburpena:

Merkantzia-ontzietan gehienak gizonezkoak izaten ziren. Gehienez hiru emakumezko joan zitezkeen. Berak "frigorista" bezala lanean ibili zenean, emaztea eramateko baimena izan zuen eta birritan joan zen emaztea barkuan. Kapitainak bautizatu egin omen zuen emaztea eta diploma eman.

8. Emaztea ere merkantzia-ontzian bidaiatzen II

- **Erref:** AMT-005/013
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:17:44. **Bukatu:** 00:18:54

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Nabigatzea

Laburpena:

Emaztea merkantzia-ontzian joan zen beraiekin eta kapitainak diploma bat eman zion, ekuatorea zeharkatu zuelako. 1976ko diploma erakusten du.

9. Suezko kanaletik ezin pasa eta Afrika osoari buelta

- **Erref:** AMT-005/014
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:18:54. **Bukatu:** 00:21:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Nabigatzea

Laburpena:

Sasoi batean petrolio-ontzian ibili zen. Persiatik Mediterraneora joan behar izaten ziren, Suezko kanala zeharkatuta. 1970 inguruan, gerra baten ondorioz, ezin izan ziren pasa Suezko kanaletik eta Afrika osoari buelta eman behar izan zioten. Bestelako gerrarik ez zitzaien tokatu. Euren pasaportearekin nazio gehienetan sartzeko aukera zuten, Errusian eta beste gutxi batzuetan salbu.

10. Atzerrian komunikatzeko arazoak; Japoniara bidaiak

- **Erref:** AMT-005/015
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:21:16. **Bukatu:** 00:22:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Nabigatzea

Laburpena:

Merkantzia-ontziak konpainia norvegiar batenak ziren, baina bai kapitaina eta baita tripulazioa ere euskalduna edo galiziarra. Atzerrian komunikatzeko arazoak. Japoniara joan ziren batean taxian sartu eta euren barkua aurkitu ezinik ibili ziren. Galiziarrek adarra jotzen zieten, euskaldunek japoniarren antzera hitz egiten zutela esanda.

11. Bidaia gehien Erdialdeko Amerikara, platanotara

- **Erref:** AMT-005/016
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:22:44. **Bukatu:** 00:24:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Nabigatzea

Laburpena:

Japonian Tokiora joaten ziren asko. Garai hartan ez zegoen kotxeak garraiatzeko barkurik eta beraiek eramaten zituzten merkantzia-ontzian Japoniatik Ameriketara. Erdialdeko Amerikara egin zuen bidaia gehien, platanotara. Bonita platano markak barkuak ere bazituen. Sagarrak, patatak eta beste gai batzuk ere garraiatzen zituzten.

12. Itsasoko lana: urtebete etxera itzuli gabe

- **Erref:** AMT-005/017
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:24:09. **Bukatu:** 00:25:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Nabigatzea

Laburpena:

1968an hasi zen merkantzia-ontzietan lanean. Hamar hilabetetik hamahirura bitartekoak izaten ziren kontratuak. 1975ean ezkondu zen eta ezkondu ostean ere urtebete pasa egin zuen etxera etorri gabe. Ustez egindako lanagatik kotizatzen zuten arren, erretiroa hartzeko garaian lan egindako urteen erdiak bakarrik azaltzen omen zitzaizkion.

13. Japoniara bidean denboraleak harrapatu zituenekoa

- **Erref:** AMT-005/018
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:25:53. **Bukatu:** 00:28:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Nabigatzea

Laburpena:

Itsasoan bizi izandako denboraleak. Behin Japoniara zihoazela barkuari sekulako astindua eman zion olatu batek eta ura makinetaraino sartu zitzaien. Orduan bititakoak. Hong Kongen konpondu zieten barkua.

14. Itsasgizona izateko Hornos lurmuturretik pasa behar

- **Erref:** AMT-005/019
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:28:52. **Bukatu:** 00:31:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Nabigatzea

Laburpena:

Itsasgizona zarela esateko Hornos lurmuturra pasa behar dela esaten omen dute. Bera ez da inoiz pasa handik; Magallaes itsasartetik bai. Hiru ozeanok bat egiten dute Hornosen eta izugarrizko denboraleak sortzen omen dira. Magallaesi eta Juan Sebastian Elkanori buruz historiak dioena eta esaten dena.

15. Merkantzia-ontzian Ameriketara egindako bidaiak

- **Erref:** AMT-005/020

- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 00:31:00. **Bukatu:** 00:34:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Nabigatzea

Laburpena:

Panamako kanaletik pasatzen ziren asko, baina Magallaes itsasartetik ere bai batzuetan. Gogoan du egin zuen lehen bidaian minerala eraman zutela Argentinara. Garraiatzen zutenaren arabera eta epe batez ibilbide jakinak egiten zituzten. Egindako bidaietan ikusi dituenak: dorre bikiak eraikitzen, Empire State, piramideak...

16. Barkuko janzkera

- **Erref:** AMT-005/021
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:34:46. **Bukatu:** 00:35:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Nabigatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Barkuan makinetan bero egoten zen eta normalean fraka motzetan eta gainekorik gabe ibiltzen zen. Segurtasun-oinetakoak erabiltzen zituzten, puntan budina dutenak. Erdialdeko Amerikara egiten zituztenez bidaia gehien, bero izaten zuten normalean.

17. Europa Iparraldean itsasoa izoztuta

- **Erref:** AMT-005/022
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:35:51. **Bukatu:** 00:37:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Nabigatzea

Laburpena:

Behin Danimarkatik irten eta Filadelfiara joateko, Mantxako kanaletik pasa beharrean, iparralderagotik abiatu ziren. Itsasoa izoztuta zegoen eta barkua gelditu egin zen. Egunak behar izan zituzten aurrera egiteko.

18. Barkuaren zarata

- **Erref:** AMT-005/023
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:37:05. **Bukatu:** 00:38:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Nabigatzea

Laburpena:

Barkuaren makinetan beroa eta zarata. Zaratak ez zion molestatzen lo egiteko, zarata jarraia izaten delako; motorra isildutakoan orduantxe

konturatu. Bestelako zaratak izaten dira txarrak barkuan, esaterako, ate bat kolpeka badago.

19. Panamara bidaiak; eguzkia eta eltxoak

- **Erref:** AMT-005/024
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:38:40. **Bukatu:** 00:42:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Nabigatzea

Laburpena:

Panamako lehorreratzearen inguruko azalpenak: itsasoaren mailaren gainetik pasa behar, eskaileretan. Barku barruan, makinetan ez zuten hotzik izaten, baina kubiartan denetariko eguraldia jasan behar. Barkua txapazkoa zen eta eguzkiarekin asko berotzen zen. Panaman ekaitz tropikalekin barkua lurrunetan jartzen zen. Inoiz ez du eguzkitarako kremarik erabili. Eltxoentzako ere ez. Batzuek eltxoen helduekin beteta egoten ziren, baina berari ez zioten eragiten.

20. Ur irakina eta gatza sendagaitzat

- **Erref:** AMT-005/026
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:43:35. **Bukatu:** 00:44:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Amama-aititarik ez zuen ezagutu. Ez du gogoan amak sendabelarrik erabiltzen zuenik. Mantzanilla tripako minarentzat, zaldar-belarra. Ur irakina eta gatza erabiltzen ziren gauza askotarako.

21. Gardatako eskolan ibilia; maistra, Lekeitioko fraideak

- **Erref:** AMT-005/027
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 00:44:26. **Bukatu:** 00:49:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Gardatako eskolara joan zen umetan. Gogoan du mesedeetako fraideak joaten zitzaizkiela Lekeitiotik eta paper bat sinarazten zietela, eurekin fraide joateko. Maistra nafarra izan zuten: Laura Elberdi. Frankista ei zen. Dena gaztelaniaz ikasi zuten, euren artean euskaraz egin arren. "Cara al sol" abesten zuten goizero. Ordezko irakaslearekin gertatutakoa. 16-17 urterekin igeltsero lanetan hasi zenean ez zekien gaztelaniaz. Espainiako beste probintzia batzuetatik etorritako asko zegoen sasoi horretan.

22. Gardatako eskolan 60 neska-mutil maistra batekin

- **Erref:** AMT-005/029
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:49:51. **Bukatu:** 00:50:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Gardatako eskolan adin desberdinetako 60 neska-mutil inguru ibiltzen ziren, maistra bakarrarekin. Eskolak gela bat eta sukaldea ere bazituen. Liburu bakarra erabiltzen zuten.

23. Eskola materialik ez

- **Erref:** AMT-005/031
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:51:36. **Bukatu:** 00:52:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

Eskolan liburu bakarra izaten zuten eta, idazteko, klariona eta arbela. Ekonomikoa zela eta ez zutela zaborrik sortzen dio.

24. Hileko lehen barikuan Lekeitiora konfesatzera

- **Erref:** AMT-005/032
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:52:25. **Bukatu:** 00:53:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Dotrina. Hileko lehenengo barikuan Lekeitiora joan behar izaten ziren konfesatzera. Abade batzuek galdera gehiago egiten zituzten eta inork ez zuen nahi izaten haiengana joatea. Gero igandean jauna hartzera, baraurik.</p>

25. Konfesatokia; fraideen sermoiak

- **Erref:** AMT-005/034
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:54:28. **Bukatu:** 00:56:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Hileko lehenengo barikuan Lekeitioko eliza nagusira joaten ziren konfesatzera. Konfesatokian mutilak erditik barrura sartzen ziren eta neskak alboko leihoetatik konfesatzen ziren. "Ejerzizioak". Fraideek gogor gogor jarduten zuten sermoietan. Sexu-harremanetan "tranpa" egitea bekatu zela esaten zuten. Fraideetako bat bertsolaria omen zen.

26. Amarengandik jasotako kopia zaharrak

- **Erref:** AMT-005/036
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:57:58. **Bukatu:** 01:00:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Kanta zaharrak galdu egin dira asko. Amak kantatzen zituen maitasun kopia zahar batzuk kantatzen ditu.

27. Soinuaren lapurretaren inguruko bertso zaharrak

- **Erref:** AMT-005/037
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:00:54. **Bukatu:** 01:02:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:

Amorotoko bertso zahar batzuen inguruko azalpenak. Garai batean soinu-jotzaile bati soinua lapurtu omen zioten. Herriko bat jotzen zuten erruduntzat, bina azkenean aurkitu zuten benetako erruduna eta erruduntzat jotzen zutenak gertatu zenari buruzko bertsoak atera omen zituen.

28. Ardien inguruko bertso zaharrak

- **Erref:** AMT-005/038
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:02:32. **Bukatu:** 01:03:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak

Laburpena:

Ardien inguruko bertso-zahar batzuen zati batzuk kantatzen ditu. Garai batean bertsolariak zeuden Amoroton.

29. Probalariei ateratako bertsoak

- **Erref:** AMT-005/040
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:03:36. **Bukatu:** 01:04:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak

Laburpena:

Probalariei aterako bertso zaharrak. Bertso asko omen dira; baina gutxi batzuk kantatzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com